

## Gipuzkoako Bazkundera 130 gazterekin lanean ari da Gipuzkoako enpresetan barneratzeko asmoz, Kualifikazio eta Enplegu Programa Integralaren barne

- *Kualifikazio eta Enplegu Programa Integrala - PICE, lana bilatzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Gazteen neurri eta enpresen beharretara diseinatuta dago.*
- *Europako Gizarte Funtsak diruz laguntzen duen programa da eta horrez gain, Euskal Autonomi Erkidegoan "la Obra Social la Caixa"ren laguntza du.*
- *Lau urte iraungo dituen proiektu honek Gipuzkoako Bazkunderak pertsonengatik, enpresengatik eta lurraldearengatik egin duen apustuaren urrats bat gehiago da.*

**Donostia - 2015eko Azaroaren 10a** – Kualifikazio eta Enplegu Programa Integrala – PICE, lana bilatzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzendua dago. Programa hau gazteen neurri eta enpresen beharretara diseinatuta dago, eta datozen lau urtetan estatuko 85.000 gazte gaitzeko eta enpresetan sartzeko jarri da martxan.

Programa hau Gizarte Segurantzaren eta Enplegu Ministeritzaren Gazte Bermearen Sistema Nazionalan kokatzen da eta Europako Gizarte Funtsak diruz laguntzen du. Horrez gain, Euskal Autonomi Erkidegoan "la Obra Social la Caixa"ren laguntza du.

Kualifikazio eta Enplegu Programa Integralaren helburua 16 eta 29 urte bitarteko gazteak lanpostu bat izateko aukera bermatzea da, euren gaitzea eta enpresa batean esperientzia praktikoa izatea bermatzen den bitartean. PICEren berezitasuna da, gazte bakoitzaren profilara arabera ekintza ezberdinak planteatzen direla eta programan parte hartzen duten enpesei dituzten behar konkretuei erantzuna ematen saiatzen dela.

Gazteei dagokionez, PICEk bost fasetako ibilbidea planteatzen du. **Bokaziozko orientazioa:** euren errealitate hoberen egokitzen den prestakuntzara bideratzen da. **Prestakuntza Tronkala:** euren lan aukerak handitzen dituen prestakuntza eskaintzen zaie. **Prestakuntza zehatza:** prestakuntza eta gaitasun beharrak eskatzaile bakoitzaren profilara egokitzen dira gazteen errealitatea eta merkatuaren beharrak kontutan hartuz. **Enpresetan praktikak:** gazteak enpresetan egindako praktiken bitartez lan munduaren errealitatea ezagutzen dute. Praktikak 3 hilabete iraungo dute eta hilabetero 426 euroko diru laguntza jasoko dute Euskal Ganberak "la Obra Social la Caixa"rekin sinatutako hitzarmenari esker. **Lan munduan sartzea:** txertatze hau bakoitza bere enpresa sortuz egin daiteke edo beste baterako lan eginaz. Lehenengo kasuan pertsona ekintzaileak 1.800 euroko laguntza jasoko du.



Programan parte hartu duten gazteak kontratatzen dituzten enpresen kasuan berriz, 1.500 euroko laguntza jasoko dute, beti ere kontratua mugagabea bada. Hau da PICEk enpresei eskaintzen dien onuretako bat. Horrez gain, eskaintzen dituzten lan postuetarako gaitasun zehatzak dituzten gazteak kontratzeko aukera ematen zaie, horrela enpresek gizarte erantzunkizuneko programa batean parte hartzen dute, gazteen lanarekiko eta etorkizunarekiko konpromisoa hartzen dutelarik.

## **PICE Gipuzkoa**

Gipuzkoako Bazkondeak Kualifikazio eta Enplegu Programa Integrala – PICE martxan jarri zuenetik, apiriletik, 131 gazteek parte hartu dute, horietatik 119k orientazio fasea pasa dute, 33k prestakuntza tronkala amaitu dute eta 15ek prestakuntza zehatza. Urrian prestakuntza zehatza amaitu zuten 15 horietatik 5 praktikak egiten ari dira Gipuzkoako enpresetan.

Gipuzkoako Bazkundera etortzen diren gazteen profilari dagokionez, emakumezkoa da gehiengoa %53 eta gizonezkoak berriz, %47, bataz besteko adina bestalde 24 urtetakoa da. Ikasketa maila altukoak dira, %92ak ikasketa unibertsitarioak edo Lan Heziketako goi mailako ikasketak dituzte.

Orain arte programan parte hartzeko interesa izan duten enpresak berriz, 50 izan dira. Era askotako profileko enpresak dira, bai enpresa handiak eta baita enpresa txikiak eta ertainak ere, industria eta zerbitzu sektoretakoak. Enpresa handiekin, euren beharretara egokitutako prestakuntza plan zehatz baten diseinua lantzen ari gara, hau da, bezeroei bideratutako profil zehatzago bat, enpresaren aktibitatearen arabera bezeroaren ezaugarriei egokitugakoa eta ez hain profil teknikoa.

Datozen lau urtetan, Gipuzkoako Bazkundera Gipuzkoako gazteak lan munduan sartzeko ahaleginean jarraituko du Kualifikazio eta Enplegu Programa Integralaren – PICEren bitartez. Gertuko helburua 2016rako 350 partehartzaile lortzea da. Programa hau Gipuzkoako Bazkundera pertsonengatik, enpresengatik eta lurraldearengatik egin duen apustuaren urrats bat gehiago da.

***Informazio gehiago nahi izanez gero:***

Irune Bengoetxea

**[ibengoetxea@camaragipuzkoa.com](mailto:ibengoetxea@camaragipuzkoa.com)**

943 000 310 / 688884347